



**Aita Jaime Clotet Fabres jaio  
izanaren bigarren mendeurren  
(1822-2022) ospakizuna**

ବିଶ୍ୱାସୀ ଓ ମୁକ୍ତିଦାୟକ



**P. JAUME CLOTET**

© Missionaries Sons of the Immaculate Heart of Mary  
General Prefecture of Spirituality and Community Life  
Rome, 2022



*Cofundador* *Catequista dels sordmuts* *Secretari General*  
*Subdirector General* *Encarregat dels Germans*  
**Fr. Jaime Clotet**  
*Catequista dels sordmuts* *Encarregat dels Germans* *Cofundador*  
**1822-2022** *Subdirector General*  
*Encarregat dels Germans*



## Sarrera-ereserkia

Nire nahia  
zure esku dagoenetik,  
askatasun onenaren neurria  
ezagutzen dut.  
Zatoz, Jauna, eta har ezazu  
nire aukeraren gidaritza,  
zure eskutik fidatzen naiz,  
zure esku bait nago;  
ezer gutxi ukatzen dut,  
ni Zurea izanik eta Zu nirea.

Giza maitasunaren indarrez  
jainkozko maitasunean besarkatuko naiz.  
Santutasuna nigandik anaiengana  
doan bidea da.  
Naizen hau emateagatik  
ez nuen mesederik jasotzeko eskurik luzatu;  
denei nire osasunetik eta oinazetatik  
eskaini nintzen,  
horrelako maitasun hutsean  
hartu nauela heriotzak.

## Hasiera

Aita Jaime Clotet Fabrés gure Kongregazioaren sortzaileetako gazteenaren jaiotzaren bigarren mendeurrena komunitatean otoiztera deituak gaude. Bere lan zorrotz eta metodikoan, bere leialtasun ukiezinean eta bere espiritualtasun mistiko eta misiolari sakonean, bertutearen eta santutasunaren eredu aparta aitortzen dugu. Bere beatifikazio prozedura Erroman sartua dago. Aita Clotet-i buruz Vicente Sanzek *Huellas de Claret*-en idazten du *"guztien maitatua eta gurtua izan zen, bere kristau eta erlijiosoaren perfekzioaren forjari nekaezina; bakoitzaren ongizatearen arduratsua; mundutik igaro zen santutasunaren lurrin leun bat bere atzetik utziz. Ez zuen etsairik izan"*. Bera gogoratzean bere bitartekaritzaren itzaropenean eskatzen dugu inoiz ez daitezela falta Kongregazioan misiolari errotuak eta ausartak, ebanjelioa denei iragarriz Jainkoa zerbitzatuko dutenak.

## Otoitza

Gure Aita eta Jauna, gure anai Jaime Clotet Beneragarriaren jaiotzaren bigarren mendeurren ospakizunean eskatzen dizugu eman diezaguzula bere bizitzan zehar Kristo eta Claret-ganako hain sakon bizi izan zuen maitasuna, eta horrela

apostoluak izan zure Herri Santuari erabat emanak, berak bere eredu eta testigantzarekin erakutsi zigun bezala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## **Aita Cloteten idazkietatik**

“Gor mutu bat lehen aldiz ikusi dudak bakoitzean, erruki sentimendu bat piztu zait, fedearen egia nagusiak ezagutarazteko ia ezin eutsizko bulkada izan dut, eta hori zaila da, bide batez, baina beharrezkoa eta kontsolamendurik handiena bere zoritxarrean. Hori izan zen arrazoa, apaizgo ikasketak hasi nituenetik, mimikaren artean trebatzen saiatu izana, gero, nire ezinbesteko betebeharrekin onartzen zidatenean, dohakabe haiei Katekismoa irakasten jardun nuen, astean behin bakarrik. Haien otzantasunak, haien arretak eta esker on handiak bihotza liluratzen zuten, lana gozoago bihurtuz, eta gero jakin ahal izan nuen nire ikasgai xumeek, hain gutxitan izan arren, denborarekin oso emaitza onak emango zituztela.

Desioak bultzatuta, eta beste apaiz eta sekular batzuek fruitua eman dezaten hain behartsuak direnak hezteko, ezen hauek errukia eragiten diete beren aldi baterako eta betiko onerako interesa

dutenei, Katekismo hau idatzi nuen, eta, nire mesfidantza gorabehera, orain argira ematera erabaki dut, onartu behar ditudan pertsona errespetagarrien adierazpenari men eginez." (*Mutuen Katekismoa*, Vic, 1870; 5 orr).

## **Erantzun Salmoa (26. salmoa)**

### **E/ Jauna dut argi eta salbamen**

Jauna dut argi eta salbamen:

nork ni bildurtu?

Jaunak dit bizia babesten:

nork ni ikaratu?

### **E/ Jauna dut argi eta salbamen**

Gaizkileak ni desegiteko asmoz erasotzen ba didate

eurak, ene arerioak,

dira labaindu eta jausiko.

### **E/ Jauna dut argi eta salbamen**

Gudaroste batek inguraturik ere,

nire bihotzak ikararik ez;

nire aurka borrokan hasita ere,

nik konfiantza galtzen ez.

### **E/ Jauna dut argi eta salbamen**

Gauza bakarra diot Jaunari eskatu,  
 horixe bakarrik dut irrika:  
 Jaunaren etxean bizi nadila  
 bizitza guztian,  
 Jaunaren edertasunari begira  
 eta haren tenpluaren zaindari.

**E/ Jauna dut argi eta salbamen**

Bere aterpean gordeko nau  
 zoritxar-garaian,  
 bere etxolako txokoan ezkutatuko,  
 bere harkaitz gainera jasoko.

**E/ Jauna dut argi eta salbamen**

Horrela, burua tente eramango dut  
 inguratzen nauten arerioen aurrean.  
 Kantatu eta soinua joko diot Jaunari.  
 Itxaron Jaunarengan! Eutsi gogor, izan kemen!  
 Itxaron Jaunarengan!

**E/ Jauna dut argi eta salbamen**

## **Irakurgai biblikoa (1 Korintoarrei, 13, 1-13)**

Nahiz eta gizakien eta aingeruen hizkuntzez hitz egin, maitasunik ez badut, brontze soinuari eta ezkila tintinlari besterik ez naiz. Nahiz eta profezi dohaina izan, nahiz eta misterio guztiak eta munduko jakintza guztiak ezagutu eta mendiak lekuz aldatzeko

adinako sinesmena izan, maitasunik ez badut, ez naiz ezer. Dudan guztia behartsuen artean banatu eta neure gorputza erretzeraino emanik ere , maitasunik ez badut, ez naiz ezer. Maitasuna eraman onekoa eta bihozbera da; ez du bekaizkeriarik, ez handiusterik, ez harropuzkeriarik. Ez da lotsagabea, ez berekoia, ez haserrekorra; kaltea ez du gogoan hartzen. Ez da bidegabekeriaz poztan, baizik eta egian poztan da. Maitasunak dena barkatzen du, dena sinesten, dena itxaroten, dena ongi eramaten. Maitasuna ez da behin ere itzaltzen. Profezi dohaina desagertu egingo da, hizketa arrotzez mintzatzea amaituko, ezaguera ere amaituko. Erdizkakoia baita orain gure ezaguera, erdizkakoia gure profezia; eta, bete-betekoa iristean, desagertu egingo da erdizkakoia. Haur nintzenean, haur bezala mintzo nintzen, haur bezala sentitzen nuen, haur bezala juzgatzen. Gizon egin naizenean, utzi egin ditut haur-gauzak. Orain dena ilun ikusten dugu, ispiluan bezala; gero aurrez aurre ikusiko dugu; orain erdizka ezagutzen dut; gero oso-osoan ezagutuko dut dena, Jainkoak neu ezagutzen nauen bezala. Hiru gauza ditugu oraindik, iraunkor direnak: sinesmena, itxaropena eta maitasuna; baina hiruretan handiena maitasuna da.



## **Hausnarketa: aita Clotet, "aingerua giza haragitan"**

Gure Kongregazioak 2022ko uztailaren 24ean ospatuko du Jaime Clotet gure sortzaileetako gazteenaren jaiotzaren bigarren mendeurrena. Jainkoari esker ekintzara gonbidatzeaz gain, aukera ematen digu hain misiolari ospetsuren irudia gogora ekartzeko. Bere bokazio klaretarra fundazioaren urte berean agertu zen, aita Claret entzutez ia ezagutzen ez zuenean.

1849an, aita Clotet apaiz ekonomoa zen Vic-eko elizbarrutiko Civit izeneko herri txiki batean. 1845ean ordenatua, 27 urte zituen. Baina parrokia desegokia zitzaion bere izaera eta joerengatik. Bere kezken araberako erakunde batean ezartze-nahian zebilen. Jaime Pasarell eta Jaime Soler kalonjeekin kontsultatu zuen bere egoera. Biek Mosen Claret-ekin elkarrizketatzea proposatu zioten, baina ez zioten jakinarazi bilera horren xedea.

Aita Clotet-ek zioenez, honelakoa izan zen aita Claret-ekin izandako elkarrizketa:

- *Apaiz lagun batzuk erabaki dugu -zioen aita Claret-ek- elkarrekin bizitza bizitza-plan batekin eta otoitzean eta ikasketan aritzeko,*

*eta gotzainak agintzen digun lekura predikatzerara joatea; eta normalean predikatzen ez den urteko hilabeteetan, etxean erretiratuta egon eta atseden hartzen denbora ematea, otoitz egiten eta zientziak erreparatzen. Gustatuko litzaizuke bizi-modu hau?*

- *Zer egingo duzue —erantzun zion aita Clotet-ek— gorpuzkera ahuleko, garaiera baxuko, ahots itzaliko, otoitz-dohainik gabeko eta irismen laburreko gizon batez?*
- *Ahaztu ezaugarriak —erantzun zion aita Claret-ek—; ihardetsi niri bakarrik.*
- *"Plana gustatzen zait" -ondorioztatu zuen-.*
- *Hala izanik – jarraitu zuen aita Claret-ek-, gauzak prestatu, uztailaren hamabostean (1849koa) Vic-en egon zaitezten: laster ordezeko bat bidaliko dizute.*

Batzuetan, batzuetan bakarrik, eztabaida erabakigarri batek hain ibilbide laburtuak jarraitzen ditu zalantzarako edo zalantzei tarterik eman gabe. Aita Clotet-ek ez zuen denbora gehiago behar izan aita Claret-en gidaritzapean hasitako obra handiarekin bat egiteko.

Aita Clotet-ek eragin sakona eta iraunkorra utzi du Kongregazioan. Goi mailako ardurak izan zituen fundatzailekide gisa, Anaien lehen belaunaldien hezitzaile gisa, inork ez bezala aita Claret-en bizitza eta lana ezagutzen zuen, Fontfroideren azken egunetako kronikagilea. Gobernutzan zuhur jardun zuen, hainbat etxetako nagusi, zuzendariorde eta Kongregazioko idazkari. Bigarren Konstituzioak idazten lagundu zuen. Misiolari herrikoia, katekista, gogo-jardun zuzendari eta gor-mutuen pedagogia kateketikoaren aitzindaria izan zen. Sendotasunez aurre egin zien zailtasunei eta kontraesanei, kontsolatzen jakin zuen, baita onartezintzat jotzen zuena salatzen ere.

Bere eragin sarkorra leialtasunezko gizon gisa bete zuen. Berari zor zitzaion Kongregazioaren bultzada espirituala, behin aita Fundatzailea hil ondoren. Bere zainetan bizitza sagaratuarekiko maitasun sakona txertatu zuen, gure misiolari erakundearen berezitasunari berez lotua. Hiru aholku ebanjelikoak eman zituen lehen klaretarra izan zen, Institutuaren asmo iraunkorra sorreratik. Ostegun santu batean gertatu zen, 1861eko martxoaren 18an, Graciako etxean (Bartzelona). Adibideko hizkuntzaren bidez, *"errukiaren, arduraren eta bertute guztien ariketaren"* eredu oso handia eskaintzen digu (aita José Xifré).

Jainkoari erabat emana, Konstituzioen praktikan jarritako arreta eta Jainkoaren presentzian zuen gizon-karisma oraindik ere erakargarri dira ekintza apostolikoan konprometituta gaudenontzat. Misiolari ausartak izango garela gogorarazten digu, sustraituta bizi bagara.

Joan Paulo II.a aita santuak agurgarritzat jo zuen, 1989ko maiatzaren 13ko Dekretuan agertzen den bezala. Clotet-en bizitzari buruz egiten duen sintesi zehatzean dio: *“Kongregazioko anaien artean, aita Claret-ek finkatutako Misiolariaren idealaren jarraitzaile ezin hobetzat jo izan da beti.”*. Eta hitz horiekin soberan dago gehitu dezakegun guztia.

## Isilunea

## Eskariak

“Ni gabe ezin duzue ezer egin”, diosku Jaunak. Eska diezaiogun konfiantzaz gugan hasitako obra ona bete-betea gauzatu dadila:

- aita Clotet-en antzera, Jainkoak bere herriaren alde egiten dien deiari apostolu berri askok erantzun diezaioten, eska diezaiogun Jaunari.

- Ezinduta edo mugatuta sentitzen diren ezgaitu espiritual eta fisikoak , gaixo eta behartsu guztiak aurkitu dezaten zaugarritasunean nork lagundu eta Kristorako bidean hurbiltasuna nork eman, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure Kongregazioan Anai Misiolariak inoiz falta izan ez daitezen, aita Clotet halako arduraz eta maitasunez aritu baitzitzaien, eska diezaiogun Jaunari.
- Aita Clotet Beneragarriaren eredu eta bitartekaritzak klaretarrei beren misiolari bizitza santutasunez bizitzen lagun diezaieten, otoitza ekintza apostolikoan txertatuz, diezaiogun Jaunari.
- Elizan katekesian dihardutenek fedea transmititzen jakin dezaten eta apostolutzaren zailtasunetan etsi ez dezaten, diezaiogun Jaunari.
- *Beste eskari batzuk gehitu daitezke...*

Gure Aita

## **Azken Otoitza**

Eman iezaguzu, Jauna, Jaime Clotet aita agurgarria sutu zuten fedea eta maitasuna, bera bezala Kristoren Erreinua hedatzean pobrezia, ukapena eta sormena besarkatzeko gai izan gaitezen gogo apal eta alaiz. Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. Amen.

## **Bedeinkapena eta amaiera abestia**



